

NEURE ALABA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

JULIA berrogeita piku urteko emakumea da, eta adinez nagusi dela dirudi, orain arte jasan dituen adikzio eta alkoholismoagatik. Aireportuko heltze terminalean dago, eskuz idatzitako "**MARTA**" jartzen duen paper bat eskuen artean duela.

JULIA: (Ondoan duen emakume bati) Ni ere alabaren zain nago. Hegazkin horretan dator. (Kartelaren arrazoia azaltzen du) Ez dut inoiz ikusi. Beno, jaio zenean, noski. Argazkiren bat bidali dit, joan den astean bidali zizkidan, baina ez nago ziur ezagutuko dudarik hortik ateratzen denean, hainbeste aldatzen dugu naturalean. Nik ez diot argazkirik bidaltzen jakin, ez naiz asko argitzen gaurko aparatu hauekin, beste belaunaldi batekoa naiz. Lehen ez genuen komunikatzeko hainbeste erraztasun. Lehen, gizon batek esaten zizun: "Tabakoaren bila noan", eta ez zenuen berriro ikusten. Aitak hori egin zuen, tabako bila joan zen haurdun geratu nintzenean. Esan zidan: "Ez naun berandu helduko". Eta ez nuen berriro ikusi. Beste garai batzuk ziren. Berak ezagutu nahi izan nau. Bilatu egin ninduen. Adina izango da, pentsatzen dut, bere bizitza ordenatu nahi du. Mutil-lagun ederra du, argazki batean berarekin atetzen da. Barkatu didala uste dut. Ez, ez da ezer txarrik egin nuela, une horretan egin behar nuena egin nuen, edozein ama onak egingo lukeena: orain etorkizuna du. Medikua da, badakizu?, ospitale batean, zer erantzukizun, medikua, nire txikia medikua da. Jende ona dira, medikuak. Ni sendatu egin naute, asko zor diet. Mutil-laguna ere medikua da. Zenbat mediku... Eta mutil-lagunaren aita mediku famatua da. Medikuen familia dira. Diru askoko jendea. Baina dirua ez da lehena. Dirua baino gauza garrantzitsuagoak daude. Argazkian oso elkar ikusten dira, mutilak horrela hartzen du, atzetik, besarkatzen, eta berak begiratu eta elkar irribarre egiten diote. Apustu egiten dut, ezkondu egingo dira egunen batean. Argazkiak ez du gezurrik esaten, maiteminduta daude. Agian ezkontzen dela esatera dator. Bai, agian hori da. Eta, agian... ezkontzara joatea nahi du... eta familia ezagutzea. Bai, familia ezagu dezadan nahi du, eta... haiek ni ezagutu... ni... ni... (Iritsien panela aipatuz) Hor 11:30 jartzen du, ezta? Hegaldia 11:30etan iritsiko da. Uh, oraindik asko falta da. 11ak dira. Pixka bat aterako naiz. Kanpoan pixka bat erretzera. Hartzen didazu, mesedez? Oraintxe bueltatuko naiz. Eskerrik asko...

Ele txera
Haurdunak zabalduz

